

BERMEON MERKATARITZA ETA OSTALARITZA DINAMIZATZEKO (MERKATARITZA ETA OSTALARITZA ELKARTEAK) DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN OINARRIAK.

IN-E 180/01-15

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	Behargintza Saila
INSTRUKTOREA:	Behargintzako zuzendaria (Nere Mintegi)
BALORAZIO BATZORDEA:	Merkataritza, Turismo eta Sustapen batzordean ordezkaritza duten alderdi politiko bakoitzeko zinegotzi bana eta Behargintzako zuzendaria
DIRULAGUNTZA ARLOA:	Merkataritza eta/edo ostalaritza dinamizatzeko ekintzak.
KODEA:	Behargintza dirulaguntza 2019
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO KOPURUA: DIRU	30.000 euro. 15.000 euro merkataritza elkartetarako y 15.000 euro ostalaritza elkartetarako. Partida zenbakia: 2019-01000-43300-4810000 (Merkataritza eta ostalaritza elkarteen dirulaguntza)
HELBURUA:	<p>1. Helburuak</p> <p>Oinarri-arau hauen helburua merkataritza eta ostalaritza elkarteen dinamizatzeko garatzen dituzten proiektuak finantzatzeko Bermeoko Udalak ematen duen dirulaguntza arautzea da. Halaber, proiektuak ezarri eta garatzearen aldeko apustua egin nahi da.</p> <p>Dirulaguntza hauek ematean, Bermeoko Udalak udalerriko denda txikietako merkataritza eta ostalaritza sustatu nahi du. Helburu hori lortzeko antolatu nahi ditu sustapen-jarduerak eta merkataritza-ostalaritza animaziorako proiektuak, Udalaren sustapen ekonomikorako sailak ongi deritzen jarduerak guztiak.</p> <p>Dirulaguntzak dira, eta ondoren aipatzen diren lerroei lotuta daude:</p> <p>a) Lokal bat alokatzea merkataritza eta ostalaritza elkarteen bulego gisa eta, hala, haien lana erraztu eta ikusgaitasuna sustatuko da.</p> <p>b) Merkataritza eta ostalaritza elkartetako urteko jarduerak planetan aurreikusitako ekintzak egitea.</p>
EPEA:	<p>2. Epea</p> <p>Eskaera egiteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik 15 egun naturalekoa izango da Bermeoko Udalaren BERHAZ erregistro orokorrean (jendaurreko ordutegia: astelehenean ostiralera 8:30etatik 14:30etara; astearte eta ostegunetan arratsaldean 16:30 -19:00 eta larunbatetan 10:00tik 13:00era. Udan arratsaldeetan itxita).</p> <p>Azaroaren 26ko 30/1992ko Legearen 38.4 artikulua dioenaren gainerako eratarik ere aurkez daitezke.</p>
	3. Laguntza plan honen barruan honako onura hauek onartu ahalko dira:



**BALORAZIO IRIZPIDE
ZEHATZAK:****3.1. Jabetzan lokalik ez duten merkatarien eta ostalarien elkarteei lokalak alokairuan emateko laguntza ekonomikoak**

Lokalaren alokairuaren hileroko kostuaren %75 lagundu ahalko da diruz, eta gehienez 225 euro/hilean (gehienez 2.700 euro urtean).

3.2. Urteko jarduketa planeko ekintzak egiteko laguntza ekonomikoak

Diruz lagungarriak izango dira 2019. urtean egiten diren proiektuaren jarduerak. Baztergarriak izango dira aldiz, oinarri hauen 1.b. atalean jasotzen diren helburuak betetzea xede ez dutenak.

Oinarri hauen babesean ematen diren laguntzen gehieneko zenbatekoa jarduera planaren sailkapenaren arabera izango da. Horretarako, hurrengo ataleko balorazio irizpideak aplikatuko dira:

- 15.000 euro gehienez merkatarien elkarteetarako.
- 15.000 euro gehienez ostalarien elkarteetarako.

4. Jarduera plana sailkatzeko irizpideak:

Urteko jarduera plana: **100 puntu**

1. Proiektuaren edukia, programatutako ekintzen originaltasuna, diseinua, aniztasuna eta oinarrien helburuarekiko egokitasuna (0-20 puntu bitartean)
2. Aurkeztutako proiektuan parte hartuko duten Bermeoko establezimendu kopuruaren aurreikuspena, honela banatuta:
 - 10 - 30 establezimendu: 5 puntu
 - 31 establezimendu baino gehiago: 10 puntu
3. Aurretik egin ez diren proiektu berritzaileak edo egiteko modu berriak erabiltzen dituztenak (0 - 15 puntu bitartean)
4. Inguruko animazio eta erakarpenerako jarduketak. Ekintzak Bermeoko hainbat esparru, gunee, auzotan egitea (0-20 puntu bitartean)
5. Ekintzek hedabideetan izango duten oihartzunaren aurreikuspena eta ekintzetara hurbilduko den jende kopuruaren aurreikuspena, bai herri mailan bai herritik kanpo (0-15 puntu bitartean)
6. Emaitzak, hau da, errentagarritasun ekonomikoa. Ez du zertan berehalakoa izan behar. Herriaren irudia zabaldu, herriaren ikusgaiatsuna. (0 - 20 puntu bitartean)

Aurretik jasotako puntuazio guztiak gehienezko puntuazio modura hartzen dira irizpide bakoitzerako.

Balorazioaren emaitzaren arabera, honako eskala hau ezartzen da:

- a) 70 eta 100 puntu artean dauden jarduera planak A motakotzat joko dira.
- b) 50 eta 69 puntu artean dauden jarduera planak B motakotzat joko dira.
- b) 20 eta 49 puntu artean dauden jarduera planak C motakotzat joko dira.
- d) 0 eta 19 puntu artean dauden jarduera planak ez dira diruz lagungarriak izango.

ESKATZAILEAK:**5. Erakunde onuradunen betekizunak**

5.1. Merkatari eta ostalarien elkarteek dirulaguntza hauek eskatu ahal izango



dituzte aurkeztutako ekintzen memorian ekintzak, egutegia, jarduerak egiteko baliabide ekonomikoak eta horien jatorria ere xehetasun osoz adierazten badituzte.

5.2. Elkarrekin betekizunok bete behar izango dituzte eskaera aurkezteko epea amaitzen denean eta gutxienez dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan mantendu behar dira:

- a) Jarduera Bermeon egitea.
- b) Helbide soziala eta fiskala Bermeon edukitzea.
- c) Bermeoko Udalarekin ordaintzeko epe betearazlean zorrik ez edukitzea, ezpada zor horiek, horretarako eskumena duten udal organoek egiaztatuta egotea.
- d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak egunean edukitzea.

5.3. Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso eskubide hori azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13.2 eta 13.3 artikuluek dakartzaten debekurako kausetan sartuta egotearren mugatuta edota kenduta duten elkarrekin.

1.a) idatz-zatian jasotako dirulaguntzak eskuratzeko **baldintza gehigarria:**
— Lokal propioz ez izatea

Elkarrekin deialdi honetan jasotako laguntza programan parte hartzen duen denbora osoan bete behar dira oinarri hauek .

DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:

6. Diruz lagun daitezkeen proiektuak

6.1. Elkarrekin lokalaren alokairua

Jabetzan lokalik ez duten elkarrekin lokalaren alokairu kostua, baldin eta bertan ondorengo jarduerak egiten badira:

- Merkatarientzako eta ostalarientzako arreta eta informazioa ematea.
- Merkataritza eta ostalaritza elkarrekin kideentzako arreta eta informazioa ematea.
- Elkarrekin barruko lana egitea, baita bertatik egiten diren ekintzak garatzeko ere.
- Elkarrekin dokumentazioa artxibatzea eta biltzea.
- Elkarrekin sustapen eta marketineko materiala artxibatzea eta biltzea.
- Merkataritza eta ostalaritza elkarrekin kideentzat eta euren ekintzetarako funtzio anitzeko espazio bat prestatzea (zozketak, sari banaketak, urteurrenak...).
- Zuzendaritza batzordearen bilerak egitea.
- Haren jarduerari lotutako beste batzuk.

Inola ere izango dira diruz lagungarriak honako hauek:

Elkarrekin onuradunen gastu arruntak, esaterako argindarra, telefonoa, ura, gasa...

— Makineria, informatika ekipoak, obretarako gastuak eta abar moduko

inbertsio gastuak.

— - Langileria gastuak.

Finantza gastuak, BEZ kengarria, berreskuratze edo konpentsatuak izan daitezkeen beste zerga edo tasa batzuk.

— Ordezkaritza gastuak edo dietak.

6.2. Elkartearen jarduera plana

Diruz lagundu daitezkeen gastuak proiektuko jardueri buruzko kostuak dira, eta 2019an eginda ondorengo helburuak lortzea dituztenak xedetzat:

1. Diruz lagungarriak izango dira elkarteek honako egitasmoak egiteko oinarrian barruan sartzen diren gastuak (kanpo geratuko dira berreskuratze edo konpentsatu daitezkeen gastuak eta finantza gastuak):

a) Komertzio eta/edo ostalaritza sektorea dinamizatzeko enpresak kontratatzea, betetze epe zehatzak dituztenak, hurbileko merkataritza eta ostalaritzaren dinamizazioan eragin zuzena dutenak eta merkataritza eta ostalaritza guneetara zehazki bideratutakoak, betiere diruz lagundu ahal diren epean jarduketa zehatzak barne hartzen badituzte eta benetan egiten badira.

b) Dirulaguntzan planteatutako ekintzak edo ekintza planak komunikatzeko ekintzak egitea, esaterako:

— Ekintzak komunikatzeko euskarriak, promozio materiala eta zabaltzekoa diseinatzea: kartelak, eskuorriak...

— Diruz lagundutako ekintzen sustapenerako komunikazio materialak eta euskarriak zabaltzeko gastuak.

— Merkataritza eta ostalaritza sektore edo guneak sustatzeko herritarrei begirako animazio eta kanpo harremanetarako ekintzak.

— Diruz lagundutako ekintzaren barruan dagoen ekimenaren edozein kostu.

2. Diruz lagungarriak diren egitasmoak dirulaguntza eman den urtean egingo dira.

3. **Inola ere** izango dira diruz lagungarriak honako hauek:

— Elkarteek egindako dinamizazio ekintzetatik erator litezkeen sari, opari eta antzekoak.

— Webguneak, sare sozialetan kokatzea, euskarri informatikoak eta abar.

— Elkartearen zabaltzea, dirulaguntzan planteatutako ekintza bati lotuta ez dauden komunikazio kanpainak.

**PROZEDURA ETA
AURKEZTU
BEHARREKO
DOKUMENTAZIOA:**

7. Dirulaguntzaren prozedura: Norgehiagokan.

8. Agiriak

Eskaera-orriarekin batera, agiriok aurkeztuko dira:

a) Elkartearen identitateari buruzko egiaztagiria. Hala nola, eratzte eskrituraren, estatutuen eta erregistroko inskripzioaren kopia.

b) Elkarte sinatzaile bakoitzeko legezko ordezkarien NANaren kopia eta ahalordetze-agiriak



- c) Identifikazio fiskaleko txartelaren kopia.
- d) Hirugarrenen alta agiria..
- e) Elkarteko kide diren enpresa komertzialen izendun zerrenda ageri den (eskaera epea hasi aurreko hilabetekoa) eta azken ekitaldian jasotako kuotak ageri diren idazkariaren ziurtagiria
- f) Betebehar fiskalak eta ogasunarenak egunean izatearen egiaztagiria..
- g) Dirulaguntza edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera penalki ez administratiboki kenduta ez egotearen zinpeko edo ardurapeko adierazpena, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten egotea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen baitako sexu arrazoiengatikoa barne.
- h) Egitasmo bererako beste entitate batzuei eskatutako edo jasotako dirulaguntzen adierazpena, zenbatekoa eta data, edo dirulaguntzarik eza, adierazita.
- i) Aurretik Bermeoko Udalaren dirulaguntzarik jaso izanez gero, euroi datzekien betebeharrak bete izanaren ardurapeko adierazpena.<0>

9. Proiektuaren datuak

Eskaera-orriarekin batera, diru laguntza zertarako eskatzen den azaltzen duen proiektuari buruzko memoria zehatza aurkeztu beharko da eta gutxienez honako informazio hau jaso beharko du:

- a) Egingo den jarduera bakoitzeko exekuzio proiektua eta honakoak adierazi beharko dira:

- *Jardueraren izena
- *Egingo diren ekintzak
- *Irismena
- *Behar den azpiegitura
- *Ekintzen baliabide eta zabalitze planaren deskripzioa
- *Ekintzaren kronograma
- *Giza baliabideak-laguntza
- *Memoria ekonomikoa

*Eskaera baloratzen lagunduko duten deialdian ezarritako irizpideekin bat datozen bestelako datuak

- b) Aribideko urterako aurreikusitako jardueren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza.

10. Beste agiri batzuk

Diru-laguntzako eskaera hobeto baloratzeko organo inbuktoreak beharrezko ikusten duen beste edozein agiri.

11. Akatsak zuzentzea

Eskaerak eskatutako datu guztiak ez balekartza, edota eskatutako agiri guztiak ez baleude edo akastuna balitz, eskatzaileari 10 egun baliioduneko epea emango litzaioke, errekerimenduaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasita, akatsak zuzen ditzan edo derrigorrez aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzan. Antzemandako akatsak ez balira horretarako emandako epean zuzenduko, emango den ebazpena ukatuztat hartuko da Herri Administrazioen



Prozedura Administratibo Orokorra onartzen duen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 68. artikuluekin bat.

1

12. artikulua.—Prozeduraren agindua eta ebazpena. Organu eskudunak

1. Prozeduraren antolamendua eta agindua egiteko organu eskuduna Ekonomia Garapenerako zinegotzia izango da.

2. Ebazteko organu eskuduna Tokiko Gobenu Batzordea izango da, bide administratiboari amaiera jartzen dion behin-betiko akordioaren bidez.

13. Ebazteko epea

Ebazteko eta jakinarazteko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdi bakoitzean eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori berriazko ebazpena jakinarazi gabe igarotzen bada, eskatzaileak ulertu beharko du bere eskaera ez dela onartu administrazio isiltasunagatik, gerora berriaz ebatzitakoaren kalterik gabe.

14. Oinarri hauen babesean ematen diren laguntzen **gehienezko zenbatekoa** jarduera planaren sailkapenaren arabera izango da. Horretarako, hurrengo ataleko balorazio irizpideak aplikatuko dira:

- 15.000 euro gehienez merkatarien elkartetarako.
- 15.000 euro gehienez ostalarien elkartetarako.

Ezarritako irizpideen arabera **lortutako puntuazioa kontuan** hartuz, eman beharreko dirulaguntzaren gehieneko kopuruak honako hauek izango dira:

- a) A motako jarduera plana denean, 15.000 euro gehienez.
- b) B motako jarduera plana denean, 11.000 euro gehienez.
- c) C motako jarduera plana denean, 7.000 euro gehienez.

Lokalak alokatzeko dirulaguntza eskatu bada, oinarri hauetan ezarritako gehienezko kopurua hartuko da kontuan.

15. Ordaintzeko prozedura eta justifikazioa

Emandako dirulaguntzak honako epe eta baldintzetan ordainduko dira:

1. **2 arloetarako** laguntza:

- a) Eurena den lokalik ez duten merkataria eta ostalari elkarteek lokala alokatzeko dirulaguntzak.
- a) Urteko jarduketa planeko ekintzak garatzeko dirulaguntzak.

Hasierako ordainketa bat egingo da, diru laguntza osoaren %80koa, ebazten denetik hilabeteko epean.

2. Diru laguntza osoaren **bigarren ordainketa** (%20) 2019. urtea amaitu



ostean eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu ostean ordainduko da:

a) Lokala alokatzeko laguntzak:

- Lokalean egindako jardueren memoria teknikoa.
- Elkarreak lokala alokatzearren egindako ordainketaren ordainagiriak.

Bigarren ordainketa hori jasoteko eskubidea ematen duten egiaztagiriak aurkezteko epea **2020ko urtarrilaren 31n** amaituko da.

b) Urteko jarduketa planeko ekintzak garatzeko dirulaguntzak.

Behin diruz lagundutako proiektua eginda, entitate onuradunak Ekonomia Garapenerako Sailari ondoko agiriak aurkeztu beharko dizkio:

- Dirulaguntza eman den helburua bete dela eta aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera egin direla adierazten duen legezko ordezkariaren ziurtagiria.
- Jardute memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak bertan adierazita (eta dokumentazio grafikoa erantsita jardueren inguruko ikus-jakintza ahalbidetzeko).
- Eskaera egiteko unean horren berri izan ez eta helburu bera izan duten beste dirulaguntza batzuen zerrenda.
- Justifikatzeko memoria ekonomikoak honako hau jasoko du:
 - Egindako jardueren diru sarreraren zerrenda.
 - Egindako jardueretan izandako gastuak, hartzekoduna identifikatuta.
 - Dirulaguntzaren zenbatekoari egotzitako jatorrizko fakturak edo konpultsatutako kopia eta ordainketaren egiaztagiriak. Faktura horiek ezin izango dira beste erakunde batzutan dirulaguntzak justifikatzeko aurkeztu, egotzitako ehunekoan salbu. Fakturak 2019ko datarekin egin beharko dira.

Diruz laguntzeko moduko gastuak ezinbestez izango dira diruz lagundutako jarduerakoak eta dirulaguntza ematen deneko ekitaldian egin beharko dira. Gastu horien zenbatekoa ezin da inolaz ere merkatuko baliotik gorakoa izan.

Ez balitz justifikatuko edo justifikazio eskasa egingo balitz, jasotako dirua eta berandutzako interesak itzuli egin beharko lirarteke, Dirulaguntzen Lege Orokorreko 37. artikuluko 1. atalal dioenaren arabera.

Inbertsioak edo diruz lagundutako jarduerak, Bermeoko Udalak emandako dirulaguntzaz gain, elkarrearen funtsekin edo beste laguntza edo bitarteko batzuekin finantzatuko balira, gastu zerrendan zenbatekoa, jatorria eta funts horien aplikazioa inbertsioetan eta jardueretan egiaztatu beharko dira. Aldi berean beste entitate batzuetako finantzaketarik balego, emate-erabakiarekin edo organo eskudunak emandako ziurtagirirekin justifikatuko da. Ez balitz egiaztatuko, aldea norbere funtsarekin finantzatu dela ulertuko da.

Dirulaguntza emateko aintzat hartu beharreko betekizunak aldarazteak emate-erabakia aldatzea ekarri ahal du.

Erakunde eskatzailearen ordezkariak karguak ezin izango dira izan, inola ere, diruz lagundutako jardueren hornitzaileak.

Dirulaguntzaren %20 ordaintzeko balio duten agiri horiek aurkezteko epea



2020ko urtarrilaren 31n amaituko da.

Dirulaguntza ez da ordainduko onuraduna den entitateak beste dirulaguntzaren baten zuriketarik egin gabe badauka eta zuriketa horretarako epea igarota baldin badago.

16. Entitate onuradunaren betebeharrak

Oinarri-arauotako dirulaguntzaren onuraduna den entitateak honako betebeharrak ditu:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Dirulaguntza ematearen jakinarazpena jasotzen den egunetik hamabost eguneko epean entitate onuradunak idatziz eta berriaz dirulaguntzari uko egiten ez badio, onartutzat joko da.

b) Diruz laguntzeko eskatutako jarduerak egitea.

c) Diruz lagundutako jarduera egiteko beharrezko baimenak lortu eta euretako zehaztapenak betetzea.

d) Diruz lagundutako jardueretako zabalkundea egiteko erabiltzen diren bitarteko eta materialetan Bermeoko Udalaren babesleak adierazi behar da. Helburu hori lortze aldera, euskarri guztietan, karteletan, ikurretan, informazio grafikoan, idatziz eta ahoz eta zabalkundea zein publikitate izan dezaketen jarduketetan ere agertu behar du babesleak. Euskarri guztietan, Udalaren ikurra nahiko ondo ikusteko moduan egon behar da eta tamaina handieneko ikurra bezain handia izango da.

Halaber, materiala hedatzen bada, Udalari gutxienez ale bat eman behar zaio.
e) Indarrean dagoen araudiari jarraiki dirulaguntza eman duen organoak egiaztatzeko egin ditzakeen jarduketak onartu eta lagundu, baita Udalak egin dezakeen bestelako finantza-kontrol, aurreko jarduketei dagokienez eskatzen zaien datu eta informazio emanda.

f) Organo eskudunaren aurrean betekizunak eta baldintzak bete direla justifikatzea. Era berean, jarduera edo proiektua ere egin direla eta dirulaguntzako jardueraren helburua ere bete dela justifikatuko da, oinarriotako 14. artikulua dioenari jarraiki.

g) Udalari jakinaraztea helburu bererako beste administrazio batzuk eta entitate publiko zein pribatuek eman dieten diru-laguntzen berri.

Jakinarazpen hori, beste dirulaguntzen berri izan bezain laster egin behar da. Edonola ere, jasotako funtsak zertan erabili diren zuritu baino lehen egingo da.

h) Gertatzen den edozein aldaketa jakinaraztea, baldin eta dirulaguntza jasotzeko kontuan hartua izan bada.

i) Lau urtez gordetzea jasotako funtsen egiaztagirak, agiri elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketetan ezinbestekoak izan baitaitezke.

j) Udalari jakinaraztea zazpi lanegun baino lehen, diruz lagundutako jarduerak zein toki, egun eta ordutan diren. Aldaketarik balego, jarduerako dataren aurretik ere esan behar da, eta udalak aldaketa horiek onartu egin beharko ditu.

k) Behar den bezala errespetatzea jarduera egiteko azpiegitura eta utzitako esparru publikoa. Jarduera egindakoan kalterik edo narriadurarik antzemango balitz, balorazioaren zenbatekoa dirulaguntzari ken dakioko, behin horretarako espedientea izapidetuta.

17. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

Estatuko edo nazioarteko edozein Administrazioak edo erakunde publiko edo pribatuk emandako beste diru laguntza batzuk jasotzea onartzen da, baldin eta haien zenbatekoak (bakarrik edo beste diru laguntza batzuekin batera) diruz

	lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez badu edo eskatutako finantzaketaren zenbatekoa murriztea ez badakar, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera betetzeko.
AURREIKUSITAKO KOSTUAK PROGRAMA HONETAN: SEGIMENDU ETA	30.000 €
EBALUAKETA EGITEKO BEHARREZKO INDIKATZAILEAK:	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintzaren kostua eta elkarteko bazkideen partehartzaile kopurua ekintzan - Herritarren partehartze kopurua ekintzan
ERLAZIONATUKO AGIRIAK:	
GENERO ERAGINA	NULO
Concesión no publicable por LO 1/1982 BAI/EZ	<i>Ley Orgánica 1/1982</i> , de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen. EZ